



Agindua, Ogasun eta Finantzetako sailburuarena, zeinaren bidez hasiera ematen baitzaio Euskal Autonomia Erkidegoko 2026. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Legearen aurreproiektua egiteko prozedurari.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen (aurrerantzean, XOEPL) 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasten da prozedura hori.

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrek, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren zati diren aldetik, "jarduera publiko orokorraren diru-sarrera eta gastuak hartuko dituzte, eta Eusko Jaurlaritzak prestatuko ditu eta Eusko Legebiltzarrak onartuko, berak ezarriko dituen arauekin bat etorritz".

Aurrekontuak egiteko eta kudeatzeko prozedura, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak (aurrerantzean, Antolarauei buruzko Legea), azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsiak, 1.2.b) artikuluan xedatzen duen bezala, ogasun horren berezko gaietako bat da.

Hain zuzen ere, honela definitzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak, edo Euskadiko Aurrekontu Orokorrak, arau horren 5.1 artikuluan: "Euskal Autonomia Erkidegoak ekonomiako edo aurrekontuetako ekitaldi bakoitzean egin behar duen ekonomi jarduera programa baten bidez zuzenduta dago, eta programa hori osatzen duten erabakiak batu ondoren, adierazpide formala ematen zaie agiri bidez, bai finantzen aldetik, bai kontabilitatearen aldetik azalduta egoten dena. Adierazpide hori dira, bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak", eta, era berean, "Euskal Autonomia Erkidegoko baliabideak ondo administratzen diren kontrolatzeko tresna dira". Horrela, Euskadiko Aurrekontu Orokorrek dimentsio eta autonomia propioa hartzen dute, diru-sarreraren eta gastuen egoeren esparru estutik behin betiko aldentuz.

Aurrekontu Orokorren konfigurazioa horrela zehaztuta, edukiari lege-estaldura emateko beharra sortzen da, eta helburu horri erantzuten dio, hasiera batean, Aurrekontu Orokorren Legeak. Beraz, lege honen lehen zeregina aurrekontu orokorrak onartzea da, hain zuzen ere.

Esparru horretan, eta agindu honen bidez, hasiera ematen zaio lege-aurreproiektua egiteari. Ogasun eta Finantzetako sailburuak proposatu du lege-aurreproiektua, Gobernu Kontseiluak onar dezan.

Aurrekoa ikusita, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Xedapen orokor bat egiteko prozedura hastea. Xedapen horren edukia honako atal hauetan xedatutakoari egokituko zaio:

a) Xedea eta helburua.

Xedapen honen zeregin nagusia Euskal Autonomia Erkidegoaren 2026ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzea da.



b) Bideragarritasun juridikoa eta materiala.

Antolarauei buruzko Legearen II. tituluko aurreikuspenen arabera, autonomia-erkidegoa osatzen duten erakundeen aurrekontuak, diru-sarreraren eta gastuen egoera-orriak osatzen dituztenak, Euskadiko Aurrekontu Orokorren edukiaren parte dira, baina horrek ez du esan nahi berberak direnik.

Herrialdearen egoera ekonomikoak berak eta gizartean dauden harreman ekonomikoen izaerak eskatzen dute, halaber, Aurrekontu Orokorren eduki zehatzarekin bat ez datozen neurriak hartzea. Hala, Legearen 6.2 artikulua beste eduki-mota bat eman die Euskadiko aurrekontu orokorren legeei, aurrekontu horien onarpen hutsaz bestelakoa, eta, horrela, "berez Euskadiko Ogasun Nagusiari dagozkion edo ogasun horrekin zerikusia daukaten beste gai batzuk ere arau ditzakete haraino zabaldua, esate baterako: langileen ordainsarien erregimena eta aurrekontu orokorren barruko kredituei dagozkien alokairu pasiboen erregimena; aurrekontu-erregimena eta aurrekontu horietako gastu publikoa exekutatzeko erregimena; berez autonomia-erkidegoarenak diren zergen erregimena; eta zorpetzeko baldintzen erregimena". Eta aurreikuspen hori zabalik utzi beharra dago, beste xedapen batzuetatik zer igorriko kontuan izanda eta, batez ere, gizarte eta ekonomiaren esparruan ageri diren gorabehera guztiak – asko baitira- kontuan izanda. Era berean, eta konfigurazio horren arabera, gai horiei buruzko arauak, Euskadiko Aurrekontu Orokorren Legeetan bildurikoek, izaera eta araubide bera izango dute, kontuan hartu gabe zer indarraldi arrunt edo luzatutan duten.

Azken batean, Euskadiko Aurrekontu Orokorretarako Printzipio Arautzaileen Legeak eta aurrekontu horiek arautzen dituzten legeak eratzen duten sistema malgua eta dinamikoa da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren barne-eremua gainditzen duen tresna da, politika ekonomikorako tresna egokia izan dadin.

Printzipio horietatik abiatuta, Euskadiko aurrekontu-erregimenari buruzko indarreko lege-xedapenen testu bateginak, maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onetsiak (aurrerantzean, Aurrekontu-araubideari buruzko TB), aurrekontu orokorren eta aurrekontu orokorren legeen berezko erregulazioa ezartzen du, aurrekontu horien edukiari, egiturari, egiteko prozedurari, kudeaketari eta exekuzioari, likidazioari eta, hala badagokio, luzapen-araubideari dagokienez. Erregulazio horren helburua, xede dituen beste gai batzuk alde batera utzita, aurrekontu-aparatu propio eta oso espezializatu bat lortzea da, sistema demokratiko eta parlamentario baten printzipio gidariak kontuan hartuta, eta bat dator Euskal Autonomia Erkidegoaren konfigurazio bereziarekin, zeina Ekonomia Itunak finantza- eta aurrekontu-arloan dakartzan berezitasunetan oinarritzen baita, eta Erkidegoaren eskumenera eta zerbitzuen mailan aldaketak aurreikusten baititu, Erkidegoari dagokionez.

Proiektatu den araua lehen aipatutako arauak osatutako esparru juridikora egokitu beharko da, eta, bereziki, Gobernu Kontseiluaren 2025eko ekainaren 10eko Erabakiaren bidez onartutako eta organo berak sailei jakinarazitako jarraibide ekonomikoetara, bai eta Ogasun eta Finantza Sailak onartutako jarraibide teknikoetara ere.

Ikuspegi formaletik, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko Testu Bateginaren IV. tituluaren ezarritako arauak bete beharko dira.

c) Ordenamendu juridikoan izango duen eragina.

Araua indarrean jartzeak eragin diezaiokeen araudiari dagokionez, alde batetik, maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuan jasotako Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko indarreko lege-xedapenak daude, eta, bestetik, proiektatutako arauak eragina izan dezakeen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren berezko beste gai batzuei buruzko arauak.

d) Proposatutako erregulazioaren ildo orokorrak. Generoaren ikuspegitik duen eragina edo emaitza eta garrantzia ebaluatzea.

Arau horrek diru-sarreraren aurreikuspena eta 2026eko ekitaldian egin daitezkeen gastuen baimena jasoko ditu, izan ere, gutxieneko, ezinbesteko eta xedaezinezko edukia baita. Era berean, diru-sarreraren aurreikuspenekin, gastuen gaikuntzarekin edo politika ekonomikoko irizpideekin zerikusi zuzena duten gaiei helduko die, baldin eta aurrekontuak eta politika ekonomikoa bera errazago ulertu eta gauzatzeko beharrezkoak badira.

XOEPLren 13.1 c) artikulua eskatzen du, hasierako izapide horretarako, proiektatutako arauaren eraginaren edo emaitzen ebaluazioak sartzea, bai eta generoarekiko garrantziaren lehen estimazio bat ere.

Aurrekontu Orokorren Azalpen Memoria izango da, Aurrekontu Erregimenari buruzko Testu Bateginaren 61.1 artikuluan – atal honen lehenengo paragrafoan aipatutako edukiak xehetasunez azaltzen dituen, baita izan dezaketen eragina edo emaitza ere.

Bestalde, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen Testu Bateginaren 15. artikuluan berariaz aipatzen da EAEko administrazio publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dutela aurrekontu publikoetan. Aurrekontu publiko horiek ekitaldiko politika publikoen gastu-aurrekontua zehazten dute, eta gastu hori, batez ere, EAEn bizi diren biztanleen beharrei erantzutera bideratuta dago. Horrela, aurrekontu-programak genero-ikuspegitik aztertuta, politika publikoen diseinuaren eta kudeaketaren kalitatea hobetzen lagunduko duten aldaketak sar daitezke.

2026ko aurrekontuak egiteko arau teknikoaren arabera generoarekiko garrantzia zehazteko irizpideak honako hauek dira:

1.- xede-biztanleria: kontuan hartzen dira bai xede-biztanleriaren bolumena, bai proiektatutako arauaren xede diren kolektibo zehatzak. Biztanleriaren bolumenak eta kolektiboek, askotan estrategikoak baitira emakumeen eta gizonen berdintasunerantz aurrera egiteko, garrantzi handieneko balioa ematen diote (3).

2.- Aldaketa-ahalmena: genero-desberdintasunak eta genero-estereotipoak murriztean eragiteko gaitasuna neurtzen du, hau da, arauak emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrera egiten zenbateraino lagun dezakeen neurtzen du. Ildo horretan, jarraibide ekonomikoek estrategikotzat jotzen dituzte berdintasun-politikak. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren jarduera konprometituta dago EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategiarekin, Soldata Arrakalaren aurkako 2030 Estrategiarekin eta Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzetarako Herri Itunarekin. Horrela, irizpide horri garrantzi handiena ematen zaio (3).

Azken batean, proiektatutako arauak garrantzi handia du 6. graduko generoari dagokionez (balio handiena).

e) Araua izapidetzea.

Aurrekontu Erregimenari buruzko Testu Bategineko IV. Tituluan ezarritako arauetaz gain, izapideetan Xedapen Orokorrek egiteko Prozeduraren Legean ezarritakoak bete beharko dira. Horien artean, kasu honetan nahitaez egin beharreko izapide eta txosten hauek daude:

- Ogasun eta Finantzetako sailburuak xedapen-proiektuari alde aurreko onarpena ematea (XOEPLren 15.1 artikulua), hargatik eragotzi gabe gerora zenbateko ekonomikoak gastuen eta diru-sarreraren egoera-orrien behin betiko konfiguraziora egokitzea.
- Ogasun eta Finantza Saileko Zerbitzu Juridikoaren txostena (XOEPLren 15.4 artikulua).

- Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren txostena (233/2012 Dekretua, azaroaren 6koa, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duena).
- Kontratazio Publikoko Aholku Batzordearen txostena, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27 a) 1 artikuluan xedatutakoaren arabera, gastua eta kontratazioa baimentzeko arauen edukia dela eta.
- Sailek Sailaren txostena eta Aurrekontu-programak genero-ikuspegitik aztertzeke formularioak betetzea.
- Genero-eraginari buruzko txostena, Ogasun eta Finantza Sailak egina, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartutako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bateginaren 20.1 eta 20.6 artikulua).
- Legezkotasunaren barne-kontrolko txostena, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiarena (Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1.a) artikulua).
- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena (urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren 25.etik 27.era bitarteko artikulua).

f) Arau-testua bi hizkuntzetan idazteko metodoa.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko, sistema hau erabiliko da: saileko legelariak euskara/gaztelania bertsioa idazteko sistema. Sistema hori, ondoren, saileko/IZO-IVAPeko itzulpen-zerbitzuek gainbegiratu eta zuzenduko dute. Horretarako, horretarako beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak esleituko dira.

g) Instrukzioa egiteko ardura duen administrazio-organoa.

Ogasun eta Finantza Saileko Aurrekontu Zuzendaritza izango da lege-aurreproiektua egiteko prozedurari buruzko instrukzioaz arduratuko den organoa.

Bigarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko 2026. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Lege Aurreproiektuarekin batera, Gobernu Kontseiluari aurkeztu beharko zaizkio Aurrekontu Erregimenari buruzko Testu Bateginaren 60. eta 61. artikuluetan adierazitako gainerako agiriak.

Hirugarrena.- Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da, eta, beraz, automatikoki jakinaraziko zaie sail guztiei, hala badagokio, ekimenaren zuzentasunari eta egokitasunari buruzko oharra egin ditzaten. Lege-aurreproiektua egiteko, Xedapen Arauemaile Orokorrak Izapidetzeko Oinarrizko Eredua eta Tramitagune izapidetze elektronikorako aplikazio informatikoa erabiliko dira, Gobernu Kontseiluaren 2025eko maiatzaren 13ko Erabakiarekin bat etorriz (erabaki horren bidez, arau-xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko oinarrizko eredia onartu zen, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearekin bat etorriz).

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren egunean.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
NOËL D 'ANJOU OLAIZOLA